

OHIKO GALDERAK

Mentor ikastaroen ziurtapenari buruzko informazio oharra:

Mentor ikastaroek **EZ dituzte inongo kasutan ikasketa arautuak ordezkatzeko eta EZ daramate titulu ofizial batera ere.** Mentor ikasgelek luzatutako **ziurtagiriek baliotasuna** izan dezakete administrazio publikoaren mendeko lan bat lortzeko, **betiere erakunde deitzaileak hori erabakitzen badu.**

1. Noiz matrikulatzen ahal naiz?

Matrikula beti dago irekita eta urteko edozein egunetan egiten ahal da, abuztuan izan ezik, Mentor ikasgela bakoitzak zehaztutako ordutegian (ikastetxeetan kokatutako ikasgelek eskola ordutegia jarraitzen dute).

2. Ikastaroak iraupen zehatza du?

Ez. Mentor ikasgelak ikasleari bere lan erritmoa jartzen uzten dio eta, horrela, bakoitzak bere aukeren arabera banatzen du ikastaroan aritzeko denbora.

3. Ikastaroa jarraitzeko beti Internetera konektaturik izan behar dugu?

Ez beti. Jarduera asko konektatuta izan gabe egiten ahal dira: deskargatutako materialak kontsultatzea, tutoreari igortzeko mezuak idaztea, deskargatutako mezuak irakurtzea... Hala ere, beste jarduera batzuetarako ezinbestekoa da Interneteko konexioa: lan mahaian sartzeko, online ebaluazioetarako, telekonferentziarako, foroetan eta oholetan sartzeko, oholetan parte hartzeko eta besteen ekarpenak irakurtzeko, mezuak, artxiboak, ftp-ak etab. igorri eta jasotzeko.

4. Eta etxean ez badut Internetik edo ordenagailurik edota ez banaiz sekula Interneten ibili?

Mentor ikasgelek bermatzen dute ikasle orok Internetera konektatutako ordenagailu bat erabili ahal izaneko duela eta, garrantzitsuenak, ikasgelako administrazioaileak aholkua eta laguntza eskainiko dituela Internet bidezko lehenengo komunikazioetan.

5. Bakarrik ikasiko dut?

Ikasgelan bertan zein urrutian arituta, ikasleak harremana izanen du, nolabait, bere prestakuntzan parte hartzen duten pertsonekin. Alde batetik, Mentor ikasgelan, administratzailearen laguntza izanen du ikasleak; hark informazioa eta aholkua emanen dizkio eta lagunduko dio ekipoak erabiltzen eta komunikazio telematikoarekin. Bestetik, ikasle bakoitzak tutore bat izanen du; hark zalantzak argituko dizkio, ebaluatuko du eta ikaskuntza prozesuaren jarraipena egingen du.

Era berean, ikastaroko gainerako ikaskideekin harremanetan jartzeko aukera izanen du, komunikabide telematikoen bitartez.

6. Matrikularen prezioan material didaktikoak sartuta daude?

Matrikulatutako guztiek prestakuntza baliabideak eskura dituzte online. Beraz, materialak deskargatu daitezke, Internetera konektaturik izan gabe ere erabili ahal izateko. Edonola ere, ikasgelako administratzaileari dagokio informazio hau eman eta osatzea.

7. Interneteko konexiodun ordenagailua eta ikastaroko programa behar ditut?

Etxean ikastea erabakitzen duenak, beharrezkoa du Interneteko konexiodun ordenagailua eta ikastaroari dagokion aplikazio informatikoa izatea. Ikasgelara joanez gero, han izanen du behar duen guztia.

8. Nor da tutorea?

Tutorea ikastaroko edukietan aditua da, irakaslanean esperientzia du eta Internet bidezko aplikazio telematikoak menderatzen ditu. Tutorearen lana da dagozkion ikasleei laguntzea, ebaluatzea eta haien ikaskuntza prozesuaren banakako jarraipena egitea. Halaber, ikastaroan matrikulatutakoen arteko elkarreragina sustatuko du, ikasgelako dinamika sortzeko.

9. Noiz jasoko dut tutorearen erantzuna?

Tutorea egunero aritzen da tutoretzan eta, ondorioz, ikasleek egindako kontsultei erantzunen die gehienez 48 orduko epean (kontuan izan gabe asteburuak, jaiegunak eta abuztua).

10. Ikastaro batean baino gehiagotan batera matrikulatu naiteke?

Prestakuntza beharren arabera, interesdunak prestakuntza ibilbidea antolatzen ahal du: bertan hainbat modulu (ikastaro) sartuko dira. Gero, moduluetan batera edo banan-banan matrikulatzeko aukera izanen du. Muga bakarra ikasgelaren eta tutoreen eskuragarritasuna da.

11. Zer da Mentor ikasgela bat?

Esan daiteke Mentor ikasgela baliabide zentro bat dela, ordenagailuak, Interneteko konexioa, programa informatikoak, materialak eta administratzaile baten aholkularitza dituen, ikastaroan matrikulatutako guztien eskura. Hala ere, ikasgelara bertaratzeko ordutegia gelaren eskuragarritasunaren arabera ezarri beharko da.

12. Nor da administratzailea?

Ikasgelaren funtzionamenduaren, aholkularitzaren eta ikasleak ikastaroetan matrikulatzearen arduraduna da. Ekipoak eta konexio telematikoak erabiltzen ere laguntzen du. Ikastaroaren inguruko orientazioari dagokionez, administratzailearen lana da ikaskuntza erraztea eta ikaslearen eta tutorearen arteko komunikazioari laguntzea.

13. Noiz egiten da amaierako proba?

Ziurtagiria eskuratzeko ikasleak gainditu egin beharko du ikasgelan egiten den amaierako proba. Proba egiten ahal du, tutorearen oniritziarekin, urtean zehar egiten diren bost deialdietako edozeinetan. Matrikulatzeak proba bi deialditan egiteko eskubidea ematen du.

14. Zer da lan mahaia?

Ikasketa inguru birtuala da. Handik sartzen da prestakuntza materialetara, ariketetara, ikastaroko berri taldera, eta han burutzen da tutoretza telematikoak. Formatuari dagokionez, online prestakuntza eta ikastaroko ikasleen eta tutoreen arteko elkarreragina ahalbidetzen duten hainbat tresnaz osatua da. Egitura hori ikastaro guztietan mantentzen da, sistema dagoeneko ezagutzen duten ikasleei erabilera erraztearren. Lan mahaian bertan azaltzen da tresna guztien funtzionamendua.

15. Ziurtagiriren bat luzatzen da ikastaroa bukatzean?

Bai. Amaierako proba gainditu ondoren, aprobetxamenduaren ziurtagiria luzatuko da. Ikastaroaren edukiak eta zenbatetsitako orduak azalduko dira bertan. Ziurtagiria sinatuko dute Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak eta kasuan kasuko erkidego autonomoko Hezkuntza Departamentuak, horrekin hitzarmena badu Ministerioak.